

ERABAKIA, 2020ko urriaren 23koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, PERTSONALEKO GERENTEORDETZArako F 925 Arlo teknikoaren arduraduna lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2020ko irailaren 11ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- Gerentearen erabakiaren bidez, 2020ko urriaren 9koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).

- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).

- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).

- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAAan), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena.- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZPko Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2017ko uztailaren 18an hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2017ko irailaren 28ko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2018ko maiatzaren 21eko EHAAan).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

ERABAKI DU

Lehenengoa: Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2020ko urriaren 26ko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2017ko uztailaren 18ko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaleei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsua jar daskioke gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2020ko urriaren 23an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché



I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA

2020/09/11

Esleipenduna: BASTERRA ORTIZ, Ricardo
Lanpostuaren Izena: Arlo teknikoaren arduraduna
Lanaldia: Arautua
Eref.: F 925
Zenbatgarrena: 1
Maila: 26
Taldea: A
Eskala: Gestio Teknikaria
H.E.: 3;
Langunea: PERTSONALEKO GERENTEORDETZA
Campus: BIZKAIA
BE: Goi mailako eginkizunak betetzeko prestakuntza programa egina izatea, espezialitate hauetan: Laneko Segurtasuna, Industria Higienea eta Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatua
Ondorio data: 2020ko urriaren 26a

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU BETEKIZUNA - 2020ko irailaren 11ko DEIALDIA

1772		F 925		Arlo teknikoaren arduraduna				Hor. 1		HE 3		PERTSONALEKO GERENTEORDETZA																					
ADJ	DNI	DEITURAK, Izena		ORD.	PUNT. GUZT.	ANTZIN. ZERBITZUAK		EMANDAKO ZERBITZUAK		F = Taldea		L ≈ Taldea		F & L ≠ Tald		EHU _n ZERB.		F = Taldea		L ≈ Taldea		F & L ≠ Tald		BESTE ADM.		GRADUA		TITUL.	HIZK.	EUSKARA		ELKAR.	
						Urteak	Punt.	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	G	◁	Punt.	Puntos	Puntos	PL	Pos.	Puntos
c) Deitutako lanpostuaren beheragoko hurrengo talde eta eskalako karreradun funtzionarioak.																																	
ADJ	30627194A	BASTERRA ORTIZ, RICARDO			39,7000	23	10,35	18,00	126	12,60			68	5,00	194	17,60					90	2,00	90	2,00	23	-3	0,5	0,25	0,50	4	10,1		